

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA

FORUZALETASUNA, NAZIOTASUNA ETA EUSKAL GOGOA, AUTOGOBERNURAKO ESKUBIDEAREN OINARRI, AUTONOMIARAKO ESTATUTUEN EGITASMOEN BIDEZ (1917-1919)

Duela ehun urte, 1917an Bizkaiko erakundeetan berritasun sakonak gertatu ziren: Comución nacionalista vasca edo alderdi jeltzalekoek gehiengoa lortu zuten Bizkaiko Diputazioan eta Bilbaoko udaletxean eta ondorioz Ramon de la Sota Aburto Bizkaiko Aldundiko presidentea izendatua izan zen eta Mario Arana Bilboko alkate. Eta berehala Bilbo, Bizkaia, eta Euskal Herriko agenda politikoa aldatu egin zen. Alderdi jeltzalean aldaketa gertatu zen:

Autogobernua lortzeko eta euskal naziotasunaren ideia euskal herritarren artean zabaltzeko, autonomia politikoa lortzea oinarritzko abiapuntutzat hartu zen. Bizkaiko Diputaziorako hauteskundeak irabazi egin zituzten eta 1917an, 20 diputatu probintzialetik 11 jeltzaleak ziren. Ramon de la Sota Bartzelona 1917ko maiatzean bisitatu ondoren, uztailean autogobernua aldeko ekimena bultzatu zuen hego Euskal Herri osoan, beste Diputazioetako kideen bidez 1917an, Gasteizen, diputatu probintzial guztien batzar nagusia sustatuz. Bertan Bizkaiko Diputazioko ordezkariatzat agiri zehatza aurkeztu zuen: “Bases para el establecimiento de la autonomía vasca” eta 1919an autonomiarako Estatutua idatzirik eta artikulaturik zegoen.

Bi urte horietan hainbat gertakizun berri izan zen: 1917an, abuztuan, autonomiaren aldeko udalerrien batzar nagusiak Gernikan izan ondoren, greba orokor eta iraultzaile bat Bilboalde guztian gertatu zen. Aste osoa izan zen istilutsua. Langileek soldatak igotzea eskatzen zuten, langileen sindikatuak onartu gabe zeuden guztiz eta Espainiako armadak parte hartu behar izan zuen. 1918an, lehendabizikoz jeltzaleek, Bizkaitik eta Iruñeatik, Espainiako parlamentuan ordezkariatza lortu zuten. Espainiako parlamentuan, XIX mendeko parlamentari foruzaleen ildoan jarri ziren: Zer zen euskal naziotasunaren

GAURREGUNGO HISTORIAZKO KATEDRADUNA UPV/EHU

RAMON BELAUSTEGIGOITIA EUSKO GOBERNU NAZIONALAREN ALDEKO ALDARRIA ERAKUTSI ZUEN, EUSKAL NAZIOTASUNEAN OINARRITURIK, NAZIO MODERNO BATI ZEGOKION GOBERNUA AURREIKUSI ZUEN

aldeko aldarria erakutsi zuten eta Espainiako aurrekontuan eta arazoetan edo aurrekontuan ez zutela nahi eraginik izan baina aldi berean Espainiakoak ere bere horretan Euskal Herriko aurrekontuak egon behar ziren.

1918an, euskal naziotasunaren aldeko ekimenean, ikuspegi berritzaileak agiri ziren: Ramon Belaustegigoi-tia Eusko gobernu nazionalaren aldeko

aldarria erakutsi zuen, euskal naziotasunean oinarriturik, nazio moderno bati zegokion gobernu aurreikusi zuen. Aize berria agiri zen eta “Las bases de un gobierno nacional vasco”, R. Belaustegigoi-tiaren liburuxkak, euskal autogobernu eta eusko agintea naziotasunaren bidezko borondatezko eskubidean sustatu eta oinarritu zuen. Jesus Sarriak *Hermes* aldizkari sortu zuen. J. Sarriak, jatorriz kubatarra zena, euskal abertzale-tasuna ikuspegi inklusibuan interpretatu zuen, hau da euskal gizartearen nazioa aldarrikatu zuen euskal hiritargoak autogobernurako eskubidearen premia zuen. Beraz, aurrerantzean, euskal naziotasuna ez zen izan behar nazionalista edo abertzaleen kezka edo ardura bat, autogobernuaren aldeko ekimenean euskal herritar guztiena izan behar zuen.

1. EUSKAL AUTOGOBERNUAREN GOGOA XIX MENDEAN BARRENA ETA XX MENDEAN ERE

Hermes aldizkariko 17 zenbakian (2005) “El Estado Vascongado triple y uno: De la “Constitución Foral (1808) al Estatuto de autonomía (1919)” artikulua argitaratu nuen. Beraz 1917an gertatu zena mende bateko ikuspegi kokatu behar dugu. XIX mendean, bereziki, 1877an, Batzar nagusiak eta bere gobernu desegin zuenean Espainiako presidenteak, aginte, gaitasun eta ondasun galtze nabarmena gertatu zen. 1839ko urteaz geroztik, aldaketa ugari gertatu ziren: Nafarroak foruen moldaketa onartu zuen, Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban aduanak itsasora aldatu ziren eta Espainiako sistema judiziala indarrean jarri eta Batzar nagusien beto eskubidea, hau da, pase forala zeritzona, Espainiako gobernuak bertan behera utzi zuen. Hala ere, Batzar nagusiak sendotu hala, iraultza liberalaren berrikuntzak Batzar nagusien bidezko gobernuak indarrean jartzen ari ziren.

Beraz egunean egunekoa Diputazioak gobernu berritzaileak bihurtu ziren. Elkar harturik eta bat eginik, 3 diputazioak biltzen ziren eta 1852an euskal konstituzio politikoaren oinarriak definiturik zegoen. "Autonomia" aldarrikatzen zen baina XIX mendean autonomiaren kontzeptua zera zen, bere kabuz kudeatzen zen lurraldea eta beraz Espainiako erresumaren baitako zati izan arren, barneko administrazio publikoan ez zuen eraginik izan behar Espainiako gobernuak. 1876ko uztailaren 21eko legeak euskal edo foru konstituzioaren oinarri juridikoa erabat desegin zuen. 1877an Batzar Nagusiak Espainiako gobernuaren aginduz ezabatu ondoren,

**AUTOGOBERNUA
LORTZEKO AUTONOMIA
KONTZERTU POLITIKOA
GERO ETA GEHIAGO
ERABILTZEN HASI ZEN.
BAINA AUTOGOBERNUAREN
ALDARRIKAPENA FORUEN
BERRESKURAPENAREN
BAITAN, IKUSPEGI KATOLIKO
KONFESIONALETIK ABIATUZ**

borondate politikoaren erakunde erreprezentatiboa desegin ondoren, aurrerantzean Espainiako gobernuaren agindua lehenetsi behar zen, mutilak soldadutzara bidaltzeko armadak indarrez bildu zituen eta zergak biltzeko behin behineko sistema indarrean jarri zen, Espainiako agintek izendaturiko diputazio berrien esku. Euskal liberalak gerraren irabazleak izan ziren, Batzar nagusi eta gobernu foralen

aldeko ziren eta azkenik galtzaile atera ziren baina erabateko galtzaile ez zitezen izan, zergen kudeaketa egiteko aukera izango zuten eta beraien semeak soldaduskara zertan joan beharrik ez zuten izango.

Autogobernu politikoa desegin ondoren, Espainiako 1878ko agindua, etorkizuneko Kontzertu ekonomikoen abiapuntua.

Beraz, aurrerantzean aginte gobernuaren berreskuratzea planteatu zen. Bitartean 1878an kontzertu ekonomikoa behin behingoa burutu zen, Espainiako kontzertuan ahalik eta lasterren sartzeko.

Hau da, onartu egiten zen Euskal Herriko lurraldeak, Espainiako egituretatik at zeudela, erregetza eta erresuma berean bizi arren. 1877an Espainiako agintarien helburu bakarra horixe izan da: ahalik eta gehien espainiartzea euskaldunak, beraien zorionerako Espainiaren bidezko bidea zelakoan onena. Euskaldunen zoriontasuna beraz espainiarren esku gelditu behar zen eta ez horrenbeste euskaldunen erakundeen esku.

Gogoratu beharra dago Pi i Margallek 1877an argitaratu zuen liburuan idatzi zuena: "*En España la cuestión de los vascos es mucho más grave que en Francia (...). Vencidos, se trata actualmente no de arrancarles sus fueros, pero sí de quitarles la exención del servicio militar y de los tributos. ¿Serán porque se los quiten, más españoles? A poco que se combinen aquí los diversos criterios para la teoría de las nacionalidades, tengo para mí que se habría de estar por la independencia de los vascos. ¿La consentirá España?*" (*Las nacionalidades*, 1877).

Beraz ondoko urteetan Diputazioetako politikariek kontzertu ekonomikoaren iraupena zuten helburu baina aldi berean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ordezkariak biltzen ziren, independentzia ekonomiko-administratiboaren alde zeuden (1898) eta "reintegración foral" hau da

foruen bidezko aginte publikoen berreskurapena ere aldarrikatzen zuten. 1904an, autonomiaren aldeko, 1905ean Liga foral autonomista sortu zen, alderdi katoliko eta liberalak bat eginik autogobernuaren alde eta 1906ko kontzertuaren negoziatzioan, zergen atala negoziatu ondoren, autogobernuaren atala geroko geroan gelditu zen.

Autogobernua lortzeko *autonomia* kontzeptu politikoa gero eta gehiago erabiltzen hasi zen. Baina autogobernuaren aldarrikapena Foruen berreskurapenaren baitan, ikuspegi katoliko konfesionaletik abiatuz. Karlistek, integristek eta jeltza-

**EUZKO ALDERDI
JELTZALEAREN OINORDE
ZEN *COMUNION
NACIONALISTA VASCAK*,
1916AN, PROGRAMA
POLITIKO BERRIA ANTOLATU
ZUEN ETA AUTONOMIA
POLITIKOAREN LORPENA
ALDERDIAREN HELBURU
ETA ARDATZ BIHURTU
ZUEN. CAMBO POLITIKARI
KATALANISTAREN KIDETZA
JASO ZUEN**

leek bat egiten zuten bitartean, bloke katolikoa eratuz. Liberalek, errepublikarrek eta sozialistek berriz autonomiaren auzia ikuspegi ez konfesionaletik begiratzen zuten eta aldi berean Espainiar ikuspegi trinkoaren eusle eta babesleztzat zuten beraien buruak. Dinastiko kontserbadore eta liberalak aldiz, kontzertu ekonomikoaren alde baina autonomiaren kontra ziren.

1905ean Frantziako Estatuan Eliza katoliko eta Estatuaren arteko aginteak erabat bereizturik ziren, Estatuaren legedia nagusia eta berdina zen guztientzat, katolikoak barne. Ondorioz, Eliza katolikoa beste erakundeen antzeko agintea besterik ez zuen izango. Espainian ere liberalen ustez, Eliza katolikoak ez zuen izan behar pribilejio berezirik. Horrela 1906an, Lopez Dominguez liberalaren elkarte erlijio-soentzat legedi berria atera zuen, mugatuz beraien pribilejioak. Estatu zibilarren nagusitza bermatu nahi zuen. Ondorioz, Liga katolikoak antolatu ziren eta 1906an Liga Foral Autonomistak ezin izan zuen aurrera egin. Konfesionaltasun katolikoak bi zatitan sakabanatu zituen autonomiaren aldeko ziren guztiak.

Hala ere, 1906an katalan eta euskal politikari batzuk, autonomia aldarrikapenaren inguruan elkar ulertzen hasi ziren. Eusko-katalanismoaren haria lantzen hasi zen¹. 1906an, Catalunyan Solidaritat Catalana alderdiak hauteskundeetan arrakasta handia lortu zuen. Katalunyan eta Euskal Herrian, autonomia politikoa ikurtzat hartuz, politikari euskaldun eta katalanek batzarrak egin zituzten. Politikari katalanistentzat Gernikako arbola aginte politikoaren ikurra zen eta 1906an Gernikan egon ziren. Hurrengo urtean, 1907an, E. Prat de la Riba, Bartzelonako Aldundiko presidentea izan zen. Katalanismoa botere politiko handiagoak kudeatzen hasi zen eta 1914an Catalunyan nortasun politikoa Mankomunitatea antolatu zuen. Mankomunitatetik autonomia politikorako bidaia egin nahi zuten. Cambó Espainiako Legebiltzarrean katalanismo politikoaren buruzagi bihurtu zen 1916an esanez: Arazo katalana aspaldikoa da eta ez da konpontzen autonomia administratibo soila antolatuz. Autonomia politikoa premiazkoa zen (*“Preferimos nosotros una soberanía muy poco extensa, pero completa, a una soberanía extensísima, pero incompleta”*).

Euzko Alderdi Jeltzalearen oinorde zen *Comunion nacionalista vasca*, 1916an, programa politiko berria antolatu zuen

eta autonomia politikoaren lorpena alderdiaren helburu eta ardatz bihurtu zuen. Cambo politikari katalanistaren kidetza jaso zuen.

**EKIMEN GUZTI HAU,
MOBILIZAZIO ZIBILAREN
BIDEZ LAGUNDU ZEN. HARA
BADA, POLITIKAGINTZA EZ
DA GOI AGINTARI BATZUEN
EKIMEN SOILA, GIZARTEAN
ERE ERROTU EGIN ZEN
AUTOGOBERNUAREN
ALDEKO EKIMENA**

2. 1917: BILBOTIK ABIATUZ AUTOGOBERNUAREN ALDEKO EKIMEN BERRITZAILEA

Ramon de la Sota Aburto gaztea eta itsas ingeniari-tzan Ingalaterran ikasketak eginak, 1917ko maiatzean, Bizkaiko Aldundi probintzialeko Presidente kargua hartu ondoren, *Euzkadi* egunkariaren arabera honako hau adierazi zuen: Lehendabizi katoliko gisa jokatu dugu eta ondoren euskaldun. Euskal mankomunitatea eta foruen bidezko aginte berreskuratzea zuen helburu. Lehen bidaia Katalunyarara egin zuen eta bertako autonomia gogoia ezagutu zuen baina aldi berean Katalunyan giro errepublikano eta zibila zegoela konturatu zen. Horregatik, aurrea hartu nahian edo berehala ekin zion eta Bizkaiko Diputazioko ordezkari-tza Gipuzkoako presidentearekin Ladislao Zavala alderdi integristakoarekin 1917ko uztailaren 9an Donostian bildu zen. Autonomia aldarrikatzeko programan adostasuna lortu zuten. Eta ondoren, hurrengo

egunean, Bizkaiko eta Gipuzkoako ordezkari-tzak, Arabara joan ziren eta Aldundiko Dionisio Aldama presidentearekin eta Arabako ahaldun probintzial zirenekin bildu ziren. Guztiak bat autogobernuaren aldeko izanik, Nafarroara joan ziren. Iruñean 1917ko uztailaren 10ean bildu ziren, sanferminen jai giroan. Guztiek, “*regimen autonomico*”a lortu nahi zuten. Foruen berreskurapena edo “autonomia politiko-a”. Diputazio probintzialeko nafarrek, aldiz, 1841eko legea zutela adierazi zuten eta autonomian sakontzeko ez zela girorik onena erabaki zuten. Beraz diputatu probintzial guztien asanblada Iruñean posible ez zenez gero burutzea, Gasteizera itzuli eta uztailaren 16an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputatu probintzialak Arabako aldundian bildu ziren. Azkenik haxe adierazi zuten: Autonomia aldarrikapena euskal herrialdeen egoera politiko administratibotik abiatuz sakondu behar zela, hau da, kontzertu ekonomiko-administratiboak abiapuntua zela.

Gasteizeko bileran Bizkaiko diputatu probintzialen ordezkari-tzak, autonomiarako oinarritzko agiria aurkeztu zuen: “Bases para el establecimiento de la autonomía vasca”. Agiri honetan bi atal nagusi bereizten dira: Estatuaren eskumenak alde batetik eta “erregioaren” eskumenak bestetik. Beraz aginte banaketa zen bakoitza bere eremuan.

Estatuaren eskumenak izango ziren: nazioarteko harremanak, armada, moneta, posta, neurtzeko sistema guztiak, aduanak eta aranzelak. Autonomiarenak, bestelako guztiak honela bereizturik: politika, merkataritza, administrazioa, finantzak eta zergak, epaileak eta aginte judiziala. Euskara hizkuntza koofiziala izango zen. Beraz, bakoitza bere eremuan eta bere aginteak kudeatzen erabateko burujabetasuna izango luke. Bizkaiko jeltzaleen testuan ez da eskubide historikoen aipamenik egiten.

Bileran, Karmelo Etxegarai historialariak, Euskal probintzietako kronista zenak, Espainiako gobernuari igortzeko,

**ESTATUAREN
ESKUMENAK IZANGO
ZIREN: NAZIOARTEKO
HARREMANAK, ARMADA,
MONETA, POSTA, NEURTZEKO
SISTEMA GUZTIAK,
ADUANAK ETA ARANZELAK.
AUTONOMIARENAK,
BESTELAKO GUZTIAK
HONELA BEREIZTURIK:
POLITIKA, MERKATARITZA,
ADMINISTRAZIOA,
FINANTZAK ETA ZERGA,
EPAILEAK ETA AGINTE
JUDIZIALA. EUSKARA
HIZKUNTZA KOOFIZIALA
IZANGO ZEN. BERAZ,
BAKOITZA BERE EREMUAN
ETA BERE AGINTEAK
KUDEATZEN ERABATEKO
BURUJABETASUNA IZANGO
LUKE. BIZKAIKO JELTZALEEN
TESTUAN EZ DA ESKUBIDE
HISTORIKOEN AIPAMENIK
EGITEN**

iritzi desberdinak adostu eta testua idatzi zuen autogobernuaren aldeko mezua, zehaztuz zeintzuk ziren Espainiako estatuaren eskumenak, goian aipatu ditugunak, gehi zor publikoarena. Euskal autogobernua eskubidea zen, “Eskubide historikoa” indarrean zegoelako eta Foru Konstituzioaren bidezko aginteak lortu ezean, autonomia egitasmoa zehaztu zen.

Ekimen guzti hau, mobilizazio zibilaren bidez lagundu zen. Hara bada, politikagintza ez da goi agintari batzuen ekimen soila, gizartean ere errotu egin zen autogobernuaren aldeko ekimena. Prentsan ikusgarritasuna izan zuen eta ondoko egunetan *El Diario de Navarra* R. de la

Sotari egin zion elkarrizketa eta zera galdetu zion: “*En donde nació la iniciativa, en qué se fundó y qué sentimiento la inspiró?*”

R. de la Sotak erantzun: “*Es difícil afirmar donde nació esta iniciativa. Nació puede decirse que al mismo tiempo en las Diputaciones vascas. Aquí estábamos reunidos un día a las doce y tratábamos de la conveniencia de iniciar un movimiento en pro de nuestra autonomía, cuando recibimos la noticia de que la Diputación de Guipúzcoa se hallaba también reunida desde las once y trataba del mismo asunto. En nosotros, como en Guipúzcoa, seguramente, fue un movimiento espontáneo. Puede decirse que la iniciativa de la Asamblea fue una consecuencia del ambiente. Y hasta puede decirse que contribuyó a ello el propio Sr. Dato con su contestación a los parlamentarios catalanes, en la que expresaba la simpatía que inspiraba al Gobierno el sentimiento regionalista. Entonces en vista del ambiente formado en todas partes y de estas mismas simpatías del Gobierno, nos decidimos resueltamente a emprender la marcha, yendo delante para que no nos envolviera el polvo que empezaba a levantarse en otras partes y apareciera borrado el verdadero sentimiento nuestro.*”

Horrez gainera, Sotak gogoratzen zuen European “*reconstitución fundamental de los Estados*” gertatzen ari zela eta beraz Euskal Herriak ere bere tokia behar zuela: “*lo único a que aspiramos por ahora es a que las cuatro provincias hermanas se unan en un mismo pensamiento, en el pensamiento de aspirar a engrandecer el País Vasco, obteniendo la reintegración de los derechos perdidos*”.

Bartzelonan bilduta zeuden Espainiako parlamentariak, Monarkiaren krisi egoerari aurre egiteko, euskal diputazioak zoriondu egin zituzten eta zera erabaki zuten: “*dirigir una calurosa salutación a las Diputaciones Vascas por su acuerdo de reclamar la implantación del régimen autonomista en la Nación española*”. (Giner de los Rios, Roig, Bergalá).

Ondoko hilean, 1917ko abuztuan, herrialde bakoitzean udalerrietako ordezkarien bidez Batzar Nagusiak antolatu ziren. Berriz ere foru-agintearen berreskurapena zen aldarrri nagusia baina horrelakorik ezean, autonomia politikoa. Ohiko pentsamendu foraletik abiatuz euskal herrialdeak Estatu baten antzera antolatutako autonomiaren eskaera zehaztu zen, eta abuztuaren 26an jatorrizko testua zerbait aldatu egin zuten. Foralizatu egin zuten eta zera eskatzen dute argi eta garbi: *“el restablecimiento de sus instituciones seculares, de sus Fueros (...) consideran necesario que se ensanchen los términos de su autonomía actual, apriasionada dentro de los límites demasiado estrechos y embarazosos”*.

**BERRIZ ERE
FORU-AGINTEAREN
BERRESKURAPENA ZEN
ALDARRRI NAGUSIA BAINA
HORRELAKORIK EZEAN,
AUTONOMIA POLITIKOA.
OHIKO PENTSAMENDU
FORALETIK ABIATUZ EUSKAL
HERRIALDEAK ESTATU BATEN
ANTZERA ANTOLATUTAKO
AUTONOMIAREN ESKAERA
ZEHAZTU ZEN**

Ondoren, abuztuaren 28an Euskal Herrian aukeraturik izan ziren parlamentariekin bilera burutu zen. Nortzuk ziren jatorrizko euskal ordezkariak, Diputatu probintzialak edo Espainiako Parlamentuko ordezkariak? Horra garaiko eztabaida. Parlamentario gehienak monarkikoak ziren eta ez zuten uste autonomia eskatzeko

une egokia zenik. Ez zen egon adostasunik. Azkenik euskal diputatu probintzialak gehi euskal parlamentari batzuk, 1917ko abenduaren 17an Espainiako presidenteari Manuel Garcia Prietori eman zioten. Baina Espainiako gobernuak ardura gutxi erakutsi zuen eta mezuaren agiri berezia galdu egin zen eta horregatik beste presidente batek, Romanonesek, kopia eskatu egin zuen 1919an.

3. 1918AN AUTONOMIA ESTATUTUAREN ALDEKO EKIMENAK

1918an Espainiako Legebiltzarre-rako hauteskundeak izan ziren eta lehen aldiz jeltzaleak sartu ziren. 1918ko urtarri-lean, W.Wilson Ipar Ameriketako Estatu Batuen presidentek munduko eta bereziki Europako herrien arteko bakea lortzeko herrien autodeterminazio askearen aldeko dotrina berria zabaldu zuen. Giro horretan Espainiako euskal legebiltzarkide jeltzale ziren: José Horn, I. Areilza, Arturo Campi3n, Pedro Chalbaud (Bizkaiko senatariak), Ram3n de la Sota, Domingo Epalza, Antonio Arroyo, Anacleto Ortueta, Ignacio Rotaetxe (Bizkaiko barrutietako parlamentariak), Jos3 Eizagirre (Bergarako barrutikoa) eta Manuel Aranzadik (Iruñeako barrutikoa). Espainiako parlamentuan azaldu zuten zer zen euskal abertzaletasuna eta F. Cambo eta katalanistetatik bereizten eta aldentzen saiatu ziren. Euskal abertzaletasuna oinarri katoliko konfezionala zuen eta bestalde ezabaturiko foruen berreskurapena aldarrikatzen zuten.

Alfonso XIIIrenak, koroak egindako mezuan, 1918an Espainiako gobernuari gomendatzen zion lege egitasmoa burutzea Euskal Aldundiekin batera, eskaturiko autogobernuan sakontzeko. Baina Espainiako gobernuak ez zuen ekimenik abiarazten. Gauzak honela, Thomas Woodrow Wilson Estatu Batuetako

Presidenteari, parlamentari jeltzaleak mezua igorri zioten, 1918ko urrian, auto-determinazio aldarriaren alde: *“El derecho de toda nacionalidad, grande o pequeña, a vivir como ella misma disponga”*. Mezu hau Espainian zabal eta luze kritikatu zen, Koroak bereziki, ez baita ahaztu behar 20 urte lehenago Estatu Batuek Cuba eta Filipinas Espainiatik bereiztu eta bereganatu zituela. Horrezaz gainera, Kongresuan, legebiltzarkide jeltzaleek, 1918ko azaroaren 3an, autogobernu prozesua irekitzeko asmoz lege proposamena aurkeztu zuten.

ESTATUTU REGIONAL DELAKOAREN ARABERA, EUSKAL ALDUNDIEK ZERABILTZATEN ZENBAIT ESKUMEN ADMINISTRATIBO AGIAN GALDU EGINGO ZIREN. BERAZ, AZKENEAN, 1919AN, AUTOGOBERNUAN IRABAZI BEHARREAN, GALDU EGITEN ZEN EUSKAL ALDUNDIEN ESKUMENAK, MURRIZTUZ

Gauzak honela, Madrilen, Espainiako presidenteari, Romanones kondeak, herrialdeetako autonomia politikoaren aldarrikapenak aztertzeko eta bideratzeko, bereziki Kataluniako auzia, Espainiako Parlamentutik kanpoko batzordea antolatu zuen. Baina batzorde horretan Espainiako partidu kontserbadorekoek esan zuten, edozein autonomiaren aurka zeudenez gero, ez zutela delako

batzordean parte hartuko. Camboren zuzendaritzapeko Ligako katalanistek, kontserbadoreak parte hartu ezean, bertan erabakitakoak ez zuenez ezertarako balioko, parte hartzeari uko egin zioten. Hala ere, batzordeak lan egin zuen eta Kataluniarako egitasmo autonomiko artikulatua burutu zuen. Eta batzorde nagusiari lotuz, euskal azpibatza antolatu zen honako hauek osoturik: J. Orueta liberala Romanonesen ildokoa. J. Chalbaud jeltzalea eta M. Senante, integrista katolikoa. Euskal batzorde horrek, idatzi zuen hain zuzen ere Espainiako Legebiltzarrean aurkeztu zen lehen Autonomia Estatutua.

Horrez gainera, Bizkaiko Aldundian, 1918an autonomi proiektuaren oinarriak joera politiko guztien artean eztabaidatu ziren. Errepublikano eta I. Prietoren sozialistek ere autonomiaren alde azaldu ziren. Eta abenduan Bilboko udaletxean Bizkaiko udalerrietako ordezkariak batzar nagusia antolatu zuten. Iskanbilak izan ziren eta Mario Arana alkatea auzipetu eta kargutik kendu egin zuten eta Bizkaiko Diputazioko Luis Urrengoetxea ere auzipetu egin zuten.

Bizkaiko Aldundi probintzian 1918ko azaroan eta abenduan aurkeztu eta eztabaidatutako egitasmoak honako hauek izan ziren:

-Proyecto de Estatuto orgánico de la autonomía vasca.

Proyecto de reorganización autonómica de Vizcaya: Vicente Fatras ahaldun probintzial errepublikarrak aurkeztu zuen.

- Reintegración foral, José M. Garay eta Hilario Bilbao karlisten egitasmoa izan zen.

- Bilboko Casa del Pueblo sozialistek 1917an Indalecio Prietok Aldundiko batzarrean abuztuan esandakoarekin bat egin zuten. Programa autonomikoaren alde hitz egin zuen

Hermes aldizkariko zuzendariak Jesus Sarria eta kideek, agiri interesgarriak

argitaratu zituzten. Euskal abertzaletasunaren ildoko ikuspegi liberala eta inklusi-boa asmatzen ari ziren eta T.W.Wilsonen ideien zabalkundeari ekin zioten esanez: " *El pueblo vasco, como el catalán, encontrará en la autonomía nacional descanso a su largo batallar (...) el pueblo vasco pide la autonomía nacional entera, la libertad para regirse internamente a sí mismo según su amplio espíritu social y jurídico*". (J. Hermes, 1918).

4. ESPAINIAR GOBERNUAK IZENDATU ZUEN AZPI- BATZORDEAREN AUTONOMIA EGITASMOA ETA BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO ALDUNDIEN ADOSTASUNA 1919

Espainiako presidentearen Gobernuak antolatutako Legebiltzarraz kanpoko batzordea lanean hasi zen eta hiruren artean, Orueta, Senante eta Chalbaudren artean eta zera idatzi zuten: "*Estatuto de la autonomía de las Regiones de Alava, Guipuzcoa y Vizcaya*": "*Subponencia para Alava, Guipuzcoa y Vizcaya*".

Estatutu horrek, foru aginte publikoak aldarrikatu zituen. Baina foru agintearen ondoriozko aginte publikoa osoa berreskuratzen zen bitartean, bitarteko egitasmotzat, autonomia proiektua proposatzen zuen. Hala ere, azpimarragarria dugu, euskal autogobernuaren berme gisa, eskumenak blindatzeko hara zer esaten zuen, hirugarren artikuluen 3 atalak: "*La administración central no tendrá intervención de ninguna clase en el ejercicio de las funciones autonómicas que se mencionan en este artículo*". Eskumenak zehatz aipatzen dira eta autonomia Espainiar estatuaren baitan, erabatekoa izan behar zuen. Antonio Maura lider kontserbadoreak guztiz kritikatu zuen artikulua hau: "*el artículo 3º resulta en su designio y en sus literales términos inaceptables,*

como inadecuado al prudente estado del asunto".

Oruetaren eraginez alegia, Kontzertu ekonomikoaren filosofia ere aldatu egiten zuen. Ogasun sistema osoaren kudeaketa bermatu ahal izateko Kupo bakarra eta osoa ordaintzea proposatzen zuen. A. Maurak haxe idatzi zuen: "*los actuales conciertos económicos son insostenibles, cada día más y si se hubiese aspirado a persistir en ellos, se dificultaría extremadamente una avenencia*".

Laburbilduz, 1919ko Estatutu egitasmoa, foruzaletasunaren ildotik abiatu zen eta berez, foruen bidezko erakundetzea oinarri hartzen zuen eta indarrean jartzea baino askoz gehiago ez zen. R. Sota eta L. Urrengoetxearen autonomia Estatu proiektuan Diputazioak desagertu egiten ziren eta euskal naziotasuna aldarrikatuz Estatuaren egitura hartzen zuen. Baina hala ere, Estatutu foruzalea, ez zen tradizionalisten atseginekoko, ezta monarkiko kontserbadoreena ere. Iruñako V. Pradrera Parlamentari karlista erabat aurka zegoen. Autonomia kontzeptua bera, abertzaleen egitasmotzat hartzen zuen. Beraz Espainiar Legebiltzarrean autonomismoaren aurka hitz egin zuen, autonomismoa eta euskal abertzaletasuna gauza beretzat definituz. Bestalde, Alba Parlamentari liberalak, proiektu alternatiboa aurkeztu zuen: Batzar Nagusiak indarrean jartzea onartzen zuen baina aginte nabarmen edo sendorik gabe. Bilboko, *El Pueblo Vasco*, egunkari monarkiko maurista-kontserbadoreak, Ybarra familiak zuzendutakoak, bere lehen orrialdean haxe adierazten zuen autonomia katalanen kontzeptua zela eta hori baztertu beharra zegoela.

Giro horretan, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundietako ordezkariak, modu praktikoan, aurrerantzean Legebiltzarraz kanpoko euskal azpi batzordeak sortutako Estatutu proiektuaren alde jardungo zutela esanez, Madrilen akordioa izenpetu zuten. Jatorrizko egitasmoei uko egin gabe. 1919ko urtarrilaren 30ean adostu zuten elkarren arteko adierazpena.

Estatutua, “*como solución transitoria y provisional*” hartzen zutela adierazi zuten, helburua “*la restauración del estado de derecho anterior a la promulgación de las leyes que vinieron a quebrarla*” zelako. Arabako Aldundiko *urquijista* lerrokoek, bere joera aldatu egin zuten eta 1917an bat eginik bazeuden autogobernuaren alde, 1919an kontserbadoreen ildora joan ziren eta zera adierazi zuten, foru osoen alde zeudela baina ez autonomiaren alde eta ez zuten izenpetu Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundiekin batera Estatutuaren egitasmoa. Arabako Aldundioek esan zuten: “*Igualarnos con los Catalanes es empezar presentándonos como si estuviésemos a su nivel*”. (1919eko otsailak 2). Bestalde, ez du Oruetaren ikuspegiko kupoan oinarrituriko eredu fiskal berria onartzen. Ohiko kontzertu ekonomikoaren alde egiten zuten.

**ESTATUTU KONTZEPTUA,
AUTOGOBERNURAKO
AGINTEAREN NORTASUN
JURIDIKO ETA POLITIKOA
BIHURTU ZEN. EUSKAL
KOMUNITATE ETA AGINTE
POLITIKOA ARAUTZEKO
BIDEA IKUSPEGI BERRITZAILE
BATETIK ABIATUZ INDARTU
EGIN ZUEN**

1919ko otsailaren 2an, Niceto Alcalá Zamora buru zuen Espainiar Legebiltzarreko batzordeak, euskal azpi-batzordeak landutako proiektuaz bere diktamena aurkeztu zuen: Estatutuaren egitasmoa erabat baztertu egin zuen. Hala ere zenbait arlo edo eskumen eztabaidatzeko aukera

zegoela adierazi zuen. Espainiako herrialdeetarako pentsaturiko *Estatuto Regional* delakoaren egitasmoa, printzipio baten arabera pentsaturik zegoen: “*legislación centralizada y la administración federalizada*”. Gehienez, administrazioaren deszentralizazioan sakontzeari ekin beharko litzateke baina Estatu osoan legedi berdina. Estatutu Regional delakoaren arabera, euskal Aldundiek zerabiltzaten zenbait eskumen administratibo agian galdu egingo ziren. Beraz, azkenean, 1919an, autogobernuan irabazi beharrean, galdu egiten zen euskal Aldundien eskumenak murriztuz.

Azkenik, Esteban Bilbao, karlistak, Tolosako barrutian hautatua izan zena eta La Guardiako barrutian hautetsitako Artiñano katolikoak, euskal azpibatzaordeak adostu zuen Estatutua berea eginez, Espainiako Legebiltzarreko eztabaidarako plenoan aurkezteko ardura hartu zuten: Jatorrizko Estatutuaren egitasmoa eta testua boto partikular gisa aurkeztu eta defendatu zuten. Lehendabizi Catalunya-rako autonomia egitasmoaren eztabaida aurreikusten zen eta ondoren euskal estatutuarena.

Aldi berean, Arabako Aldundiak 1919ko otsailaren 18an Gasteizen, euskal Aldundien arteko batzarra edo konferentzia antolatu zuen. Helburua, euskal estatutu bakarra adostea, Legebiltzarrean proiektu bat ez ezik, bi zeudelako. Eztabaida nagusia, kontzertu ekonomikoaren ikuspegi desberdinean zetzan. Bizkaiak eta Gipuzkoak, erabateko sistema fiskal autonomikoa bere osotasunean hartu behar zela defenditu zuten. R. de la Sotak guztia bere osotasunean begiratu behar zela zioen. Eta J. Oruetak kupo sistemaren alde onak azaldu zituen, foru ogasunak osotasun integrala hartzen zuelako. Julian Elorza diputatu probintzial gipuzkoarrak, karlista joerakoak, arriskua ikusten zion kupoaren egitasmo berriari: Estatuak modu horretan kupo izugarria ipintzeko aukera zuela eta beraz kontzertu sistema hobesten zuela negoziazioa zergaz zerga

egiten zelako. Azkenik, bakoitzak bereari eutsi zion. Eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek, euskal azpibatzaordearen euskal Estatutua babesten jarraitu zuten.

Aldi berean, eta garaian garaiko giroa azpimarratzeko, 1919ko urtarrilaren 7an, Bilbon autonomia politikoaren aurkako mugimendua antolatu zela aipatu beharra dago. Liberalek, mauristek eta konterbadoreek, joera guztietako monarkiko espainiarzaleak, *Liga de Acción Monarquica* taldea sortu zuten. Karlistak aparte zeuden. Talde politiko berriaren helburua “*hacer frente al movimiento separatista*” izan zen. Estrategia autonomista apurtu egin nahi zuten. Lehen ekintza Espainiako presidenteari mezu telegrafikoa bidaltzea izan zen “*protestando contra el hecho de que en la Comisión extraparlamentaria no estén representadas las aspiraciones eminentemente españolas de la mayoría del país*”.

Eta urte batzuk lehenago, Cuban gertatu zena gogora ekarri zuten autonomiaren ostean berehala independentziarako bidea zabaltzen zela. Martin Zavala senataria Ligakoen ildoan kokatuta zegoen eta Parlamentari ezaguna zena, zera adierazi zuen: foruzalea zein heinean, 1876ko uztailaren 21eko legearen aurka egon eta bozkatu zuela zioen, baina bestalde, bere burua bereziki espainiarzaleztat zuela. (*El Pueblo Vasco* 18.1.1919)

1919ko otsailaren 27an Legebiltzarak autonomiarako egitasmo legedia eztabaidatu gabe bere sesioen garaia amaitu egin zuen eta apirilean Romanonesek bere dimisioa aurkeztu zuen. Maura Espainiar gobernu buru berria izendatua izan zen eta autonomiaren aldeko ekimenak bertan behera utzi zituen.

LABURBILDUZ

1917-1919 tarteko abagune politikoak berebiziko garrantzia izan zuen ikuspuntu juridikotik eta politikotik jauzi jakingarria gertatu zelako Autonomia Estatutuen garaia hasi baitzen: Foruen berreskurapena hau da, Foru Konstituzioaren bidezko agintea gogoratuz, autogobernuaren agintea autonomiaren aldeko Estatutu berezien bidez adosten hasi zen. Aurreantzean, Estatutu kontzeptua, autogobernurako agintearen nortasun juridiko eta politikoa bihurtu zen. Euskal komunitate eta aginte politikoa arautzeko bidea ikuspegi berritzaile batetik abiatuz indartu egin zuen, tartean, Eusko Jaurlaritzaren egitura ere aurreikusiz, R. Belaustegigoi-tiak eta *Hermes* aldizkariak, besteak beste, asmatu eta aldarrikatu zutelarik.

Eta horrela, II. Errepublika iristean, autogobernurako aukera berria zabaldu zen. Giro horretan, aditu batzuk Eusko Ikaskuntzan, 1931ean proiektu berri bat landu zuten: *Anteproyecto de Estatuto. El Estado Vasco*. Ez zen izan beraz bat bateko ekimena. Bidea 1917 eta 1919an jadanik abiatu zegoen. Eta 1936an Eusko Jaurlaritza sortu eta eratu zen euskal autogobernuaren erakunde berria.

BIBLIOGRAFIA

AGIRREAZKUENAGA J. *Euskal herritarren burujabetza (1793-1919): Euskal herritarren autogobernu auziaren bilakaeraz: Foruen erakundetzetik Autonomia Estatutura*. Irún, Alberdania, 2012.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba, ed. *La articulación político-institucional de Vasconia: Actas de las "Conferencias" firmadas por los representantes de Alava, Bizkaia, Gipuzkoa y eventualmente de Navarra (1775-1936)*. 2 vols. Bilbao: Diputaciones Forales de Bizkaia, Gipuzkoa y Alava, 1995.

AGIRREAZKUENAGA J. *The Making of the Basque Question: Experiencing Self-Government, 1793-1877*. Reno, Center for Basque Studies-University of Nevada, 2011.

AGIRREAZKUENAGA J. *Hermesen egitura ekonomikoa eta juridikoa. Agiri berriak. La estructura económica y jurídica de Hermes: Documentos inéditos* Bidebarrieta. *Anuario de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*. Bilbao, Bidebarrieta Kulturgunea, 2000, pp. 203-238.

AGIRREAZKUENAGA J. (director) *Historia de la Diputación Foral de Bizkaia (1500-2014)* Bilbao, Diputación Foral de Bizkaia, 2014.

AGIRREAZKUENAGA, Joseba, et al. *Diccionario biográfico de Parlamentarios de Vasconia (1876-1939)*. Vitoria: Eusko Legebiltzarra-Parlamento Vasco, 2007.

AGIRREAZKUENAGA J. "El tránsito del discurso foral al autonomista: El "vasco-catalanismo" de 1917" Astigarraga J.&Arrieta J. *Conciliar la diversidad: pasado y presente de la vertebración de España: VII y VIII Seminarios Ernest LLuch*. Bilbao, UPV/EHU, 2009, pp 113-140.

ALONSO OLEA, Eduardo J. *Continuidades y discontinuidades de la administración provincial en el País Vasco. 1839-1978. Una «esencia» de los Derechos Históricos*. Oñate: IVAP, 1999.

ALONSO OLEA, Eduardo J. *El Concierto Económico (1878-1937). Orígenes y formación de un Derecho histórico*. Oñate: Instituto Vasco de Administración Pública, 1995.

ALONSO OLEA, Eduardo J. "Los proyectos de reinstauración de las asambleas representativas por las Diputaciones provinciales (1876-1937)." En *Contributions to European Parliamentary History. Studies presented to the International Commission for the History of Representative and Parliamentary Institutions*, editado por J. Agirreazkuenaga, M. Urquijo, Bilbao: Juntas Generales de Bizkaia, 1999, pp. 459-81.

LARRAZABAL BASAÑEZ, Santiago. *Contribución a una Teoría de los Derechos Históricos vascos*. Oñate: I.V.A.P., 1997.